



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-11-02

VIURTEA 1.549.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Zanpantzarrak ere ibili ziren herriko kaleetan zehar Elkartasun Egunaren harira. E. EZBIZA



Leioa Kantika Korala abesbatzak euskal giroko kantuak taularatu zituen. E. E

Sari banaketak emango dio gaur amaiera lehiaketari

TOLOSA Atzo haurren abesbatzen txanda izan zen; 40. edizioa amaierara helduko da gaur 4-5

Giro paregabea zabaldu dute herritarrek

LIZARTZA Elkartasun Egunean atzoko jai eguna festa giroan igaro zuten bertaratuek; 400 lagun bildu ziren zikiro jatean 6

Behe Bidasoako HITZA sortzeko laguntza kanpaina,

IKERLANAK IDAZTEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA / 2008

Euskal Herriko eta, bereziki, Beterri-Aiztondo eskualdeko historia, gizarte, kultura eta hizkuntzan ikerkizun eta ezagokizun diren gaiak landu eta hausnartzeko eta horiek idatzizko lanen bidez aditzera emateko helburua duten ikerketak diruz laguntzeko dei egin du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, jarraian datozenak direlarik deialdiaren xehetasunak batzuk:

LEHENA.- Deialdiaren helburua

Ikertuko diren gaien aukera bi ataletan banatzen da:

1. Norberak hauta eta epaimahaiari aurkez diezaion ikerkizuna, beti ere goian aipaturiko alorretako izanik zabalkunde eta irakurtzaletasun irizpideei erantzungo diena.

2. Ondoko gai hauetarikoa:

- **Fraisoro: utzitako haurren tragedia.**
- **Ezkondo aurreko harremanak. Bekatuaren grina?**
- **Zeferino Ansa: alkate moderno baten itzala.**
- **Amasa-Villabona: izena duenak izana?**

Saiakera lan horien luzera, 2.100 karaktere inguruko orrika kontaturik, gutxienez 100 orrikoa izango da.

BIGARRENA.- Saiakera lanen ezaugarriak

Saiakera lanak euskaraz landu eta idatzirrikoak izango dira. Horrenbestez, ezin izango da itzulpenik aurkeztu eta epaimahaiak gutxieneko idazkera mailakotzat irizten ez dituen lanak atzera botako ditu.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzak

Epaimahaiak bi dirulaguntza onartuko ditu, biak, gehienez ere, 2.500 eurokoak, baina dirulaguntza bi horien azken kopurua ez du erabakiko ikerketa lana eskuratu eta aztertu bitartean. Beraz, dirulaguntzak bi alditan ordainduko dira: Nolanahi ere, epaimahaiak 5.000 € kopuruko dirulaguntza bakar bat eman ahal izango du, aipatu biak bat eginda.

BOSTGARRENA.- Eskaerak aurkeztea

Eskaerak aurkezteko epea **2008ko azaroaren 28an** amaïtuko da, eta honako helbidera eramán behar dira edota bertara posta bidez bidali:
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
Ikerlan deialdia
Bulandegi bidea, 23-behea. Karidade-enea
20.150 ZIZURKIL

ZAZPIGARRENA.- Saiakera lana aurkezteko epea Dirulaguntza jasotzen duen ikerlariak **2009ko ekainaren 30a** baino lehen eskuratu beharko dio lana epaimahaiari, hala paperean inprimaturik nola eus-tarri informatioan ere.

Eskura itzazu deialdia arautzen duten oinarrien eskuorria **943 696 450** edo **943 300 733** zenbakietara deituta edo mezu bidez **beterri@aiurri.com**

tolosaldea

Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna



Beterri-Aiztondo
Gerora Bidean

Babesle



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikasle 'txarrak'



» Uzturretik

Andu Martinez de Rituerto

Pasa den ekainean, kurtsu amaiera zela eta, ikasleen aniztasuna eta bakoitzaren garrantziari eta ikasteko eritimoerri erreparratzeak zuen garrantziak jardun nintzen. Itxuraz, gehienok gure iritziak baieztatu eta indartuko dituzten euskarrien bila omen gabiltza eta hori izango da pasa den irailean Daniel Pennac idazle frantziarrak ikasle «txarren» bizipenak kontatzen dituen eleberrri autobiografikoaren argitaratzearen berri izan nuenean irakurtzen hasteko arrazoia. Bai, ondo irakurri duzue, autobiografikoa, idazle ospetsu (Frantzia bai behintzat) batek onartu du «memelo» («cancer», «zoquete») bat izan zela bere eskolaldi ia osoan -batxilergoa hainbat aldiz errepikatu zuen-

eta ez hori bakarrik, bere bizipenak bildu ditu gu denekin partekatzeko asmoz.

Bere aburuz, ikasle txarasko ez dira alperak, baino alperak izatera iritsi daitezke; behin eta berri ez ulertzearen ondorioz, ez saiatzearen babesa bilatzen dute, «saiatzen ez banaiz, ez dut porrot berri bat izango». Arazoa lehengo ez ulertzearekin hasten da, lotsak eragindako inhibizioa dela, zoria edo beste arrazoi ezkuturen bat. Kontua da kontzeptu ulergaitzen zerrenda handitzen doala eta benetan tontolapiko bat zela sinisten duzun unea iristen dela. Une hori dena den, askatzailea izan daitekeela ere aipatzen du: lerro bat zela onartu duzu eta esfortzu gehiago egiterik ez duela merezi sinisten duzu.

Liburua bizipenen kontakizuna da eta eskola kritikatzeko asmorik ez badu ere une batzuetan hausnarketa zorrotzak egiten ditu: arazoa behin ere ez dagurea, diogu irakasleok: «ikasleak ez du oinarririk» Lehen Hezkuntzako maisuak edo andereñoak Haur Hezkuntza eta etxean ez dela behar bezalako lana egin dio, Bigarren Hezkuntzako irakasleak Lehen Hezkuntzakoak ez duela

bere eginkizuna ondo bete. Batxilergoa gaundituta unibertsitatetik kexu dira ikasleen maila kaxkarraz, «zer egin dute orain arte?» Kontuak-kontu, kate honetan inork ez du arazoa konpontzeko pausurik ematen.

Bere «salbazioak» bi helduleku izan zituela dio: beragatik arduratu ziren irakasle bakan batzuk; ohikotasunetik atera eta bere esku zeuden eskakizunak egin zizkioten horiek, eta bestaldetik amodioa; lehendabiziko aldian bere familiako ez zen norbaiten maitasuna sentitzen zuela, norbaitentzat bera garrantzitsua zen, kanpoko adierazle garbia zuen bere burua estimu handiagotan izateko, eta bizitza honetan edozer gauza egin ahal izateko, zure buruarengan konfiantza pixka bat izatea funtsezkoa da.

Ez dugu behin ere jakingo bizitzaren gora-beherek nora eramango gaituzten eta ezinbestekoa da ikasle edo seme-alaben gaineko itxarobide ederrak izatea, bere bidean laguntzea eta gertuko eta ulerkorrak zaizkion gauzak irakastea. Ulermenik gabe ez baitago ikaspenik.

E Eztabaida info

Tolosako Corazonistas eliza botatzea onartu du Udalak, bertan etxebizitzak egiteko. Zer iruditzen zaizu? Etxebizitzak egiteko erabiliko al zenuke? Botatzea beharrezkoa da? Etxebizitzak behar dira?

■ «Zergatik ez dute hor Kafe Antzoki bat egiten, edo auditorioaren bat? Europako leku askotan elizak horretarako erabiltzen dituzte, kanpoko itxura aldatu gabe: akustika oso ona dute gainera. Ze behar dago pixuak egiteko? nor ekoiziko ditu ba?»

■ «Bilbon bezala egin behar dute eta TolosaRock bat egin, eta ez etxe garesti gehiago».

■ **Patxi.** «Askotan hitz egiten da etxebizitzaren arazoaz Tolosan. Oraintxe bolo-bolo dabil Voith Gorostidiko mobida eta oaintxe enteatzen naiz hor ebai etxeak egin behar dituztela. Ez al da nahi-ko gertatzen ari dena ikusteko gehiago eraikitzea ez dela irtenbidea? Alkilerre sustatu behar delakoan nago, behin baino gehiago diskutitu izan dut nere ingurukoekin eta ez dago bestelako irtenbiderik. Burbujak oraingo pot egin du eta horrela jarraituz gero okerrera egingo du egoerak».

■ **Aitor.** «Ta udaletxeak zergatik ez du iten herritarrei galdetu ea zer nahi duten hor egitea. Segurunik ez dut uste jendeak etxebizitza gehiago nahi dituenik. Aurrekoek esan dutenarekin ados nago, kontzertuetarak zerbait, edo kultur gune bat izatea gustatuko litzaidake. Bizia emango lioke herriari».

Voith Gorostidi etxebizitzaren inguruan zurrumuru asko entzuten ari da

■ «Nik ere txoiloa dela pentsatzen jarraitzen dut. Neri ere tokatu zait baino oraindik ez didate ezer firmatzeko deitu. Zain nago oraindik. Ekonomi egoerari ezin bueltaka gabiltz danok baino barruak ere beste gauza bat ere esaten dit. Ez dakit polemikoa izango den a la ez, baino, jakitun nago, bankuan eskatu eta ezezkoa eman diotenen artean badala jendea, aste santun eskiantzeari uko egin ezin izan ziona edota udaran oporretan joan behar zuzena ere. Zer esperato zenuten?».

Udazkenean ekitaldi kultural asko egiteko ohitura dago: Beharrezkoak ikusten al dituzu?

■ Bai: % 61

■ Ez: % 22

■ Ekitaldiaren arabera: % 17.

L Lehen eta orain



Exaudi kubatarrak bigarren goz gurean

TOLOSA ■ Abesbatza Lehiaketak amaierara heldu dira. Koru batzuk Tolosara bueltatzen dira. Esaterako, 1992. urtean Kubako Exaudi taldeak irabazi zuen folklore sailean (goian eskuinean, behean. Aurten ere Abesbatza Lehiaketan parte hartu dute. Talde honen folklore em-

naldia gustatu zen bereziki eta batez ere *Juramento* abestiaren interpretazioa. Orditik Gipuzkoako abesbatza askok sartzen dute abesti hau euren egitarauan. Argazkian, ikus daitekeenez, Tolosako Hodeietzek hirugarren egin zuen folklorea. HITZA

Zizurkilen Hernandorena kultur taldea osatu berri dute. Zortzi lagun inguru bi hilean behin 'Sustraiak' monografikoak ateratzen dituzte Ondoren aurkezten dena bigarren alea da, O alearen ondoren argitaratu zutena: «herriarentzat interesa izan duena eta beti entzun izan dena, hau da, tren geltokiaren izenak zergatik izenean Villabona ere baduen» jorratu dute bertan.

Villabona edo Zizurkil? Tren-geltokiaren kontu zaharrak

» Sustraiak

Hernandorena Kultur Taldea

Hamaika kontu entzun dira Zizurkilgo estazioaren inguruan! Zizurkilgoa edo Villabona-koa? Zergatik Villabona aurretik? Badira tarteko apustu edo ezkutuko eskupe-koren bat izan zela diotenak ere. Egia ote? Hego Euskal Herriko ekonomiak eta gizarteak berak ere aldaketa nabaria izan zuten eta burdinbide sarea hedatzen hasi zen Euskal Herrian. Txirritak eta, Norteko tren deitzen zioten hura, 1858. urtean hasi ziren eraikitzen. Elbarrena, XX. mende hasieran (Kutxa Fototeka) Burdinbidea gehienbat Frantziako enpresarien diruarekin eraiki bazen ere, Gipuzkoako udalerriek erreal mordoxka jarri zuten. Baina herri-tarren artean kontrakorik ere bazegoen, baserrietan bereziki. Horiari gehienak maizterrak ziren eta lur hobereak kendu zizkieten; desjabetze basati haren frogak badaude: bateko denuntziak, beste-ko erresistentziak trenbidearen obrak sabotatuz... Liberalak eta apaizak, bai, trenaren alde azaldu ziren: apaizek tren babestu zuten Tolosan egindako bilera batean eta "Camino de Hierro del Norte"-ren akzio gutxi batzuk hartu omen zituzten. Trenbidearen egitasmoak, bere ibilbidean, 1.400 bat metro egiten zituen Villabonako partean, Oriabaiaren ezker aldean, eta beste 700 bat metro Zizurkilen zehar, Elbarrenako soroak zeharkatuz. Bi herri tarteko, baina "Camino de Hierro del Norte" Villabonako udala bakarrik aintzat hartu zuen. Horregatik gorde zen bertan obra-ren dokumentazio osoa, baita Zi-


zurkilgo parteari zegokiona ere. Badirudi trenbidearen nagusiek ez zutela inguru honetan geltokirik egiteko intentzio handirik. Baina 1860an Villabonako "La Salvadora" ehungintza sortu zuten eta, haren nagusi zen Rodolfo Silvak, Villabonako tren geltokiaren premia agertu zion herriko alkateari 1861eko txosten batean. Ez zion hori bakarrik: sor zitezkeen gastuak ordaintzeko ere prest agertu zitzaion. Orduan hasi ziren inguruko agintariak mugitzen: 1863an, Villabona, Irura, Alkiza, Aia, Larraul, Asteasu, Zizurkil eta Adunako alkateek tren-geltokia eskatu zuten Madrilera. Baina alferrik: erregua ukatu zitzaion.

Hainbat urte igaro ondoren, eskabidea errepikatu zuten. Oraingoan, bai, 1872an, geltoki bat egitea onartu zuten Madril. Baina galdera luzatu zuten: nor ordainduko lituzke geltokia eraikitzearen 180.000 errealeko gastuak? Gainera, hasieran, geltokia Villabonako eremuan jasotzea pentsatzen bazen ere, aurreraxeago, Zizurkilgo lurretan kokatzearen egokitasuna adierazi zuten trenbidearen jabeek. Beste hamar urte joan ziren, ordea, estazioa altxatzen haserako. Eta bere izena? Bada hori "Camino de Hierro del Norte" enpresako zuzendaritzak proposatu zien bi udalei 1882an: VILLABONA-CIZURQUIL. Egia da gure lurreremuan zegoela, baina, kontxo! Villabona, Villabona zen orduan. Eta Zizurkil? Zer ginen bada? Hutsaren hurren Madrilgo agintarientzat. Pentsa: trenbidearen dokumentu eta agirietan oso berandu agertu zen "Zizurkil" izena bera lehendabizikoz. Beti Villabona zen. Kontua da izenaren proposamena bi udaletan onartu zela.



Baina, dena esan dezagun, Zizurkilgo udalak ez zuen sosik jarri geltokia jasotzeko. Izan ere, eraikitze-gastuak hirutan banatu ziren: erdia, La Salvadorak berak jarri zuen. Laurdena, Villabonako udalak eta azken laurdena, igeltsu fabrikek jabe eta Elbarrenan bi labe zituen Pedro Lizarragak.

Beraz, kontu polita bazen ere, ez zen apusturik izan, ez mus partidarik, ez eta azpi-ordainketarik: geltokiak VILLABONA-CIZURQUIL izena badarama, Madrilgo agintariek 1882an horrela asmatu zutelako da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

H Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

URTZ SARRA ELIZONDO



13 urtetan zurekin eta zure familiarekin konpartitu duguna eskertzuz, besarkadarik beroenak zuentzat.
Beti gure oroimenean izango zara.

Hautzaro Ikastolako DBH 2. Mailako lagunak eta gurasoak



OIARTZUN
2008ko
azaroaren 2a

URTZ SARRA ELIZONDO

Lore bat bezala joan zara udazkena ertzean gure bihotzean izango zara bizi garen artean

Anaia Amets, eta zure lehengusua: Argiñe eta Imanol, Luken, Ekain eta Unax



OIARTZUN
2008ko
azaroaren 2a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra



BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Tolosa (Bellatokia)

ISILDU DIRA AHOTSAK



Leioa Kantika Korala abesbatzak eskualde giroko kantuak taularatu zituen atzo goizean, kolorea jarritz Tolosako 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketari. www.40abesbatza.com

Kultura » Gaur, sari banaketarekin eta amaiera kontzertuarekin esango diote agur hurrengo urtera artea, Nazioarteko Abesbatza Lehiaketari.

ESTREIBEA
Atzo gauean entzun ziren 40. Abesbatza Lehiaketako azken ahotsak. 11.000ak aldera zabalku ziren Leidor antzokiko ateak,

beta ere izan zuten. Aipatuko da eskualde ordezkaritza gaztearek egindako lana. Irmitziak, pandero hotzak, eta egungo musika doinuak naharatu zituzten. Hotskin, antzokiko eserlekuetan zeudenentzakoak jasoz.

Jaialdiko emandako herrikoiak bezala deskribatzen dute askok haurren atala. Asko eta asko, espreski hau bostera joaten delarik.

Aratxaldean, helduen txanda izan zen. Polifonia eta folkloro atlean lehiatu ziren hiru abesbatza. Tartean beste eskualde bat, Gipuzkoako Kiap taldea. Hantzean bertiz, zinema mutua eta kantuak bat egin zuten Mikrokosmos frantziarrek eskainitako emandian. Hala ere, gauri Boozbarpi lotakeman eman zioten amaiera. Bertan, ohiko dantza dala izan zen

etatxepelketa koirabuzdein izenak ezagutzera eman zituzten.

Irabazlea ezagutzeko ordua
Gaur emango zaituzteko irabazleak aurten goiz jaialdiari. 11:00etan Leidorren amaiera saioa eta sari banaketa egingo da. Ondoren, 14:30 aldera, Abesbatzen Buzkaria izango da. Amaitzeko, 19:00etan, San Frantziskoz, kontzertua.

Ahotsik ederrenen atzean ere, kutxa dago.

Tolosako 40. Abesbatza-Lehiaketa
Urriaren 29tik azaroaren 2ra

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

40. ABESBATZA LEHIAKETA
URRIAREN 29tik AZARAREN 2ra

gizarte ekintza
kultura

jantzi dotore, jantzi hitza

Salmenta puntuak: Tolosako DENAK tabernan, OSKI arropa dendan eta HITZAko Tolosa eta Leitzako dulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

hitza



Hernalde Katalanetatik etorri ziren Amics de la Unio abesbatzakoak. www.40abesbatza.com



Errusiako Vodchdovojek abesbatza izan zen atzo goizean bosgarrena abesten. www.40abesbatza.com



Epainmahiko ikideak buru belarri aritu ziren lanetan, egun guztian zehar. www.40abesbatza.com



Aratxaldean, Leidorren izan zen lehiaketa, Alemaniako Ensemble Vocal Hamburg. www.40abesbatza.com

Biba zuek!



Iritzia
Mikel Zeberio

taularatze era. Talde asko sortu eta landu ditu eta bakoitzarekin hurrats berrik emandako gainazala erabiltzen da. Kantaren baita eta bermatu ostean, gorputz adierazpena eta dantza mugimendua berriak barneratzen. Euskal erritmo eta doinuak gerturatsuz ezohiko du, bere kantariek, edo nor direlarik, txertatzen die. Hori gure izenak teknika egungo beste tala herrikoiak eratzeko ere gaitza da. Aspertzeko tartarik es di es deitzen zuten aurrean zein atzetan dantzen. Gauri honen emaitza entzulego txunditza da.

Langurren taldeak, Errusiako Vodchdovojek, beste erak erakutsi ditu beste behin, estilo klasikoan. Musika leizetzaik gabekoa. Melodia eta honen penen sortzen diren armonia eta

kontrapuntak garbi eta ozen azalzeko. Azkenaldetik Txekiarak ere aparteko maila erakutsi du. Hantzeri Habanera inork ez bezalako fabardura xakak lortu dituzte inentitate eta rubatto aldiak.

Ikuslegoaren aldetik txalok oparo izan dira; guzientzat mesedek!

Azken saioa ere, jendartearen berotasunean igaro da. Nehurritasun izan da ere eskeinitakoa. Hamburgoko alemaniarrek, espresioaren mesedetan instrumentuaren haliabideak gehiago landu zituzte taldekoan naiz. Folklorean, askatutik denean dotore egin dute gaurtik.

Irrika zegoen Kupa katearen jardunaldi onuratsua. Talde orokuta eta intersektuak suertatu zait, eta

besteen artean ebidiarik gabe aritzeko moduko. Kanta erritmodunetan ikusi dituzte Gai-pontzerak, eta esaldien joan etortzaren eta dinamismo alorrean, askatasun edo oparotasun gehiago aritzen mesedetarako leizetzaiek. Era guztietara biba zuek! Era guztietara zuek! urteren ostean berriro Estoniatik etorri da.

Txantxa Ozeanoratu rekina jendek eserlekuetatik altxatzea lortu dute. Gazteko Viktoriako komposagilek, gaurkideen artean, gaitza edertasun txundigarri biltzen dute, azkiek bezela. Mailarik gorrengun amaitu da berez lehiaketaren errenda herrikoiak.

Horrela jarrai dezala aurrerantzean ere!

Erosi berriak

SOLAGÜEN 2004 urtikoa
3 botelak 73 €

REMELLURI 2004 urtikoa
ERRESERBAIO urtikoa
3 botelak 40 €

6 botelak 80 €

Corrotxategi produktuak
Lotza 29 €

Alfar
2,5 LITRO D'OLIVE BIEN ETRE
6 botelak 36 €

azaroaren 30a arte
943-30 43 45

berriro zuekin

- Okindezia
- Gosari bereziak
- Infusioan aukera handia
- Pintxoak

Ordutegia:
Astelenerdik ostiralera
7:30 - 20:00
Larunbata eta isandea
7:30 - 14:00

Kale Nausia 45 • Ullibona • 943 247 469



Giro epelerako lortu dute berotasuna

BEDAIO ■ Giro epelean egoteko eguna antolatu nahi zuten Bedaion, eta aitzakia horrekin, arratsaldean Mus Txapelketa azkarra antolatu zuten, ondoren helduentzako antzerkia eta bukatzeko Artubi elkartearen gaztain jatea. 13 bikote animatu ziren hasi zirenerako, bidean baten bat gelditu zen, jokatu ezinik: sari eta guzti zuten lehen lau bikoteek. Gaztain jatearekin batera bertsolariak ere izan zituzten. Artubi elkartekoek, beste behin, diru gutxirekin jai atsegin eta politak egin daitezkeela erakutsi dute. N.URBIZU

Aldaketa askoko eguna, obrak, leku aldaketa eta eguna bera direla eta

Azoka ■ Santu Guztien eguna zela eta, lore eta lore-sorta eskaintza handia izan zen Berdura plazan.

PABLO ALBERDI

Herenegungo azoka eguna aldatuz beteta etorri zen. Aldebate-tik, egunean, ostiralera aurreratu baitzen, Santu Guztien eguna atzo zela eta; bestetik lekuan, Zerkausiko obrak direla eta, hango postuak Triangulo plazara pasa zituzten.

Santu Guztien eguna atzo zela eta, ostegunetik ikusi ahal izan ditugu apaingarriko landareen postuak martxan. Berdura plaza lorez gainezka egon da egun hauetan. Zentroak, lorontziak eta erramuak saldu dira barrabarra, eta enkarguak jaso ere bai.

Trianguloko postuetan, aipatzekoa egun hauetako hotzaren eragina. Geratzen ziren udarako barazkiak dagoeneko agortu dira hotza dela eta: hemendik aurrera eskaintza guztia neguko produktuen izango da.

Perretxiko zerrrenda joan den astekoa izan zen. Berrikuntzarik ez, eta ikusitako produktu gehienak, kanpokoa.



Ostiraleko onddo postu bat. N.U.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Mer.	Gares.
Klabeledina	2,80	4,00
Azalea	8,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Krisantemoa	12,00	20,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Gaztaina	3,00	-
Gibelurdina	24,00	-
Ziza horia	24,00	30,00
Onddoa	14,00	24,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Baratxuria	1,60	6,00
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Aza	2,50	3,00
Kogoiola	1,00	-
Arrautzak	3,50	-

Elkartasun Egun arrakastatsuan, giro ederra jartzea lortu dute herritarrek

Lizartza ■ 400 lagun ziren frontoiko zikiro jatean; bestelako ekitaldietan ere jende ugari hurbildu zen.

NEREA URBIZU

Elkartasun Eguna bezalako ekitaldiek ematen dute herri batean urtean zehar jardunaldi ezberdinak antolatzeko aukera eta bidea: hala gertatzen da behintzat Lizartzan. Herritar talde batek prestatuta goizean goizetik egitaraua prestatu zuten, herriko txistulariekin. Ordurako frontoia kanpoaldean zikiroak erre kolorea hartzen ari ziren, izan ere, erretzen aritu zirenak 05:30ean hasi ziren sua eta garrak prestatzen.

250 kilo haragi erre zituzten, ondorengo frontoiko 395 bazkaltiarrentzat (tartean 50 bat haur). Prestatzaileek argitu bezala, «05:30a inguruan etorri gara eta haragia 07:30a aldera jarri dugu suaren inguruan zintzilik». Ondoren, putapario saltsan busti zati guztiak eta berriz suaren ingurura jarri behar izaten da. Prozesua luze xamarra da; baina itxarroteak merezi izan du, hala zioten haragia probatu zutenek behintzat.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Voith Gorostidi eremuko lehenengo fasean etxebizitza salgai. Bi logela, 2 komuna, terraza zabala, sukualdea, egongela, garajea eta trastelekua. 300.000 euro (BEZ barne). Negoziatzeko prest. Interesatuak deitu: 657 70 05 68.



Irudian, pilotalekuan, zikiro-jatearen garaian zegoen giroa. HITZA

Ordura arte, txaranga eta hau-rrantzako Takolo pailazoaren saioa izan zituzten, eta baita idiek tiratutako gurdietan egiteko pase-oak ere. Hala ere, Takoloren garaian, Takolo nahiago izan zuten, idiak baino.

Zanpantzarrek astindu zituzten haien zintzarriak, eta Takoloren saioaren ondoren gelditu ziren ikusleak akerrarekin zertxobait izutu ziren... Ordurako bazkaltzera eta herriko giroa ikustera jende ugari hurbildu zen eta bazkaltzeko txartelik ez zuenak, izan zuen bai, pena.

Arratsaldea goizari jarraituz

Zikiroa bazkaldu ondoren, Txan Magoaren saioa izan zen eta baita trikitilarien doinuak ere. Nahi zuenak, behintzat, dantza egiteko aukerarik izan zuen.

Bada, giro paregabe hau lortzeko, atzoko egunak antolatzen jarraituko dute lizartzarrek, bertaratu ziren edozein adineko herritar eta kanpotarren gozamenarako.



Goian, txistulari goiztiarrak; behean, zikiroak erretzen. N.URBIZU

Behe Bidasoako HITZA sortzeko laguntza kanpaina aurkeztu dute

Hedabideak » Biriatu, Hendaia, Hondarribia eta Irungo herri informazioa landu nahi du urtariletik aurrera HITZA berriak.

ERREDAKZIOA

Behe Bidasoako Hitza sortzeko abiarazi duten laguntza kanpaina aurkeztu zuten atzo Irunen. Zortzigarren Hitza izango litzateke urtarilean sortu nahi dena. Biriatu, Hendaia, Hondarribia eta Irungo euskaldunei herri horietako informazio osatuena emateko helburuarekin sortuko den komunikazio proiektu berria.

Euskarazko tokiko prentsaren beharra

Behe Bidasoako gizarte eragile eta norbanako talde batek, euskarazko prentsak Hendaian, Hondarribian eta Irunen dituen gabeziak nabarmentzearekin batera, euskarazko tokiko prentsaren beharra aldarrikatu zuen ekainean.

Aldarrikapen hurakontuan hartuta, orain, euskarazko komunikabideen eremuan lanean dabiltzan eragileek eta hiru herriotako euskalgintzak duela hilabete batzuk hartutako konpromisoa gauzatzera eta abian jartzea adostu dute, urtarilean *Behe Bidasoako Hitza* sortu nahian.

Behe Bidasoan Antxeta Irratia, www.bidasoamedia.info eta euskarazko beste zenbait komunika-



Atzo egin zuten laguntza kanpainaren aurkezpena. HITZA

zio proiektu sustatuz hainbat lan egin duen Pausu Media Komunikazio Elkarteak, EKTren baitako Bertako Hedabideak, Irun Iruten eta Hondarribiko euskalgintza izan dira *Hitza* berria sortzeko ekimenari heldu diotenak.

Behe Bidasoako HITZA, 2009ko urtarilean kalean

Lankidetzaren ondorioz sortutako *Behe Bidasoako Hitza* 2009ko urtarilean bidea egiten hasia da. *Behe Bidasoako Hitza* izeneko astekaria izango da hau, harpidedunei banatuko zaiona.

Lehenago, 0 zenbakia argitaratu

zi zutenek, *Hitza* berria internet bidezko egunkaria izango da bate-tik. Asteazkenean, edizio jarraitua izango du webguneak, albisteekin, argazkiekin eta bideoekin, eta asteheneretik ostiralera PDF formatuan zabalduko da beste edizio bat, webgunean bertan eta posta elektronikoz.

Bestetik, ostiralero 16-24 orrialdeko astekaria plazaratuko da paperean, ohiko egunkari formatuan. *Behe Bidasoako Hitza* izeneko astekaria izango da hau, harpidedunei banatuko zaiona. Lehenago, 0 zenbakia argitaratu

tuko da, Biriatur, Hendaian, Hondarribian eta Irunen *Behe Bidasoako Hitza* ezagutarazteko, milaka aleko zabalkundearekin.

Laguntza bonoen kanpaina, gaurtik aurrera abian

Atzoko agerraldian, *Hitza* berria ezagutarazteaz gain, hau sortzeko laguntza kanpaina ere aurkeztu zuten.

Pausu Media Elkarteak Urko Ikardoren arabera, «guztionean Behe Bidasoako Hitza sortzeko pauso zehatzak ematen hasia da, diru biltzeko egiteko

laguntza bonoen kanpaina abiaraztea eta udalekin harremanetan jartzea».

Irun Iruten elkarteko Josetxo Arrietaren hitzetan, berriz, «Irungo euskalgintzarentzat pauso garrantzitsua da bertako informazioa euskaraz landuko den egunkari bat sortzea, euskararen normalizazioan estrategikoak direlako komunikabideak eta euskalgintza bera trinkotzen duelako».

Bertako Hedabideetako Aina Lasak zehaztu zuenez, «lehendik eskualdean euskarazko komuni-

«Bonoak eskuratuz proiektua sortzen laguntzea da orain pauso garrantzitsua»

kabideek egindako bideari *Behe Bidasoako Hitza* gehituko litzateke urte hasieran eta, beraz, euskarazko komunikazio esparrua osatzeko bidean pauso berria emango genuke». Ildo horretan, «*Hitza*ren onuradun nagusiak eskualdeko herritarrek izango dira eta, beraz, proiektua sustatu eta elikatze-ko deia» egin zuten Behe Bidasoako herritarrei.

Ainhara Zuazabeitiak ere antzeko mezuaz zabaldu nahi izan zuten Hondarribiko euskalgintzaren izenean: «Eskualdeko euskaltzale eta herritarren laguntza ezinbestekoa izango da. Laguntza bonoak eskuratuz proiektua sortzen laguntzea da orain eman beharreko pausorik garrantzitsuenak».

Hondarribian, gainera, *Behe Bidasoako Hitza* sortzeko asmoak, proiektuan zuzenean parte hartuko duen euskarazko elkartearen sorrera ere ekarri du.

Joan direnentzat loreak

TOLOSALDEA-LEITZALDEA » Azaroak 1, Santu Guztien Eguna. Urteetan zehar gure senide, lagun eta ezagunak galtzen goaz, eta haiek gogoratzeke eguna dela diote: hau, kanposantura joan eta loreak jarriz egiten ohi da eta nabaritzen da. Hilerrietara urrian joan, edo azaroaren lehen azaldu, oso bestelako bisitak izango genituzke. Aurreko egunetatik hasten dira loreak erosten edo pilatzen, gero hilerrietara eramateko: lore-sortak, landareak... Kolore, prezio eta usain desberdinekoak, alegia. Irudietan, Tolosakoa eta Lizartzakoa ageri dira: dotore-dotoreak. Halaber, ahots kritiko asko dago egun honen eta egutegiak finkatzen dituen beste egun batzuen inguruan. Izan ere, zergatik behar da urtean egun bat gure hildakoak gogoan izateko? Ez al ditugu egunero gogoan? Beste guzua asko bezala, negozioa ere bilakatu da... N. URIBIZU/E. EZEIZA





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

■ **Tolosa.** *El patio de mi carcel* filma emango dute Leidor aretoan 19:30etan eta 22:00etan eta bihar (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

Musika

■ **Tolosa.** Abesbatza Lehiaketaren amaiera ekitaldia Leidorren 11:00etan, 14:30ean udal ferialekuan abesbatza bazkaria eta 19:00etan San Frantzisko elizan abesbatza saioa.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Azaroko zinema bonu salmenta 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
■ **Tolosa.** Azaroaren 8an Engomadora Modernako langile ohien bazkaria Frontonen. Informazioa eta erreserbak 943 117010 eta 943 674669 zenbakietan.

Irteerak

■ **Asteasu.** Irteera kulturala Ekainberri bisita eginez azaroaren 5ean, 15:30ean abiatuta. Argibideak jasotzeko eta izena emateko Kultur Etxera jo daiteke edo 943 69 68 96 zenbakira deitu.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.
BIHAR
■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Tolosako Babarruna Elkartekoek Turinen izan berri dira 'Salone internazionale del gusto 2008', Slow Food mugimenduak antolatutako azokan; Tolosaldeko produktua «sustatu eta saldu» dute.

«Ona, garbia eta bidezkoa»

ERREDAKZIOA

Babarrunaren izena munduan zehar barreiatzen ari da Tolosako Babarrun elkarteak. Beste pauso bat pasan den astean eman zuten, Turinen 5 egun egin baitzituzten elkarteko kideek *Salone internazionale del gusto 2008* azokan. Bertan, Tolosako Babarrunaren ezaugarriak azaldu, saldu eta dastatzeko eman zituzten. Halaber, Tolosaldea Tour erakundearekin eskuratuak liburuxka eta Tolosaldeari buruzko informazioa zabaldu zuten azokan izan zirenen artean.

Elkartetik azaldu zutenenez, «asko izan ziren stand-era inguratu eta gure babarrun honen itxuraren txunditurik gelditu zirenak, ez baitago besterik munduan, beltza denik eta batipat, dizdira hori duenik, zeren antzekoak asko daude baina gurea bezalakorik ez». «Perla Beltzak» deitzen zioten askok. Baina itxurarekin bakarrik ez zituzten erakarri, «zaporea mundiala omen eta eguardialdera askoren gozagarri bihurtu zirengure babarrunak».

Tolosaldean, Tolosako Babarrun Elkartekoek eta Euskal Txerriaren ekoizlea den Peio Urdanpilletak parte hartu zuten azoka honetan. Bizkaiko eta Arabako beste zenbait ekoizle ere parte hartu zuten.

Hemendik joan eta hurbildu zirenak ere izan ziren, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako slow elkartekoek gain, besteak beste, ezagunen artean, Rafael Uribarren Gipuzkoako Foru Aldundiko Neka-



Turinen izan dira Babarrun elkartekoak bost egunez, babarrunak erakusten. HITZA

zaritza saileko diputatua, Gipuzkoako Batzar eta Eudeleko zenbait lagun alboan zituela eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza saileko kontseilaria den Gonzalo Saez de Samaniego.

'Slow food' mugimendua eta Terra madre sarea

Bi urtez behin *Slow food* mugimenduak antolatzen du Turingo azoka erraldoia. Gizartean jakien izan zuten balio galeraren aurrean eta ekoizpen industrial baten irtenbide gisa sortu zen mugimendu hau Italian.

Oro har, ekoizle txikiak eta galtzar dauden etxebereak babestea, biodibertsitatea bultzatzea, antzinatik ibilitako haziak gorde eta erabilera bultzatzea ditu helburu mugimenduak.

Honen harira, Terra madre sare osatu dute «slow filosofiarekin bat egiten dutenek» eta honen baitan dago Tolosako Babarrun elkartea. Hain zuzen, euren leloa «Ona, garbia eta bidezkoa» da.

Elkartetik azaldu duten bazla hiru oinarri hauei eusten die sareak. Batetik, ona, «ekoizten ditugun elikagaiak kalitatezkoak izan be-

har dutelako, goxoak, ondo zaindutakoak».

Bestetik garbia, «elikagai horiek, ingurugiroa kaltetuko ez duen nekazaritza mota jasangarri bat tar-teko ekoiztuak izan behar dutelako».

Eta, azkenik, bidezkoa «prezio duinetan ekoiztu behar delako, hau da, ekoizleak bere kosteak aseptuko dituen prezioa behar du eta kontsumitzaileak berriaz, elikagaien ez dadila espekulaziorik egin».

Jarrai dezala elkartek babarrunaren bidea zabaltzen.

A Agurrak



Urte askoan!

Xuban Garmendia Gabirondo (Tolosa). Gaur 3 urte. Ondo-ondo pasa bi familien partetik.

Urte askoan!

Tomas Zubizarreta (Albiztur). Zorionak urtebetetze egunean aitona, amona eta izeba Ainhoaren partetik.



Urte askoan!

Ibai Galarza (Azpeitia). Gaur bataio eguna muxu handi bat ama bitxi eta etxeokoen partetik.